



BARREN
TOKIKOM



C.D. ELGOIBAR
1917 - 2017

Logoa: Idoia Rodriguez



C.D. ELGOIBAR

MENDEURRENAREN AURKEZPENA

Urtarrilak 10, asteartea. 19:30. Herriko Antzokian. Sarrera doan.



DANOBATGROUP

Gizartearen
Foro Aldekoa



Diputazioa Foral
de Gipuzkoa



Pol. Ind. Igartualdea, 27-Mendaro - 943 741 677 - www.dariobus.com - clientes@dariobus.com



Dario Bus: 50 urte errepidean

50 urte bete ditu Dario Bus enpresak. Gaur egun Mendaron dauka egoitza, baina Elgoibarko enpresa da. Dario Castro 1957an etorri zen Galiziatik Euskal Herrira lanera, eta Rey Quiroga enpresan hasi zen txofer. Beste pare bat enpresatan ere aritu zen lanean ondorengo urteetan, eta 1967an Dario enpresa sortu zuen, Celsa Varela emaztearekin. Celsak administrari lanak egiten zituen, eta Dario txoferra zen. Garai hartan jende asko hasi zen Euskal Herrira etortzen lanera. Eta horixe izan zen enpresa berriaren lehenengo lana; Galiziatik Euskal Herrira lanera zetorren jendea ekartzea. Ordutik, milaka kilometro egin dituzte Dario autobusek, Europa osoan zehar. 50 urte beteko dituzte 2017an.

1967an Euskal Herria-Orense-Pontevedra linea egiten hasi ziren "Borgward B611/0" mikrobusarekin. 1969an autobus berriak erosi zituzten, handiagoak, 40 bat lagunentzako tokia zeukaten autobusak ziren, eta horri esker, Mary Ward ikastetxea, Arrate kirol taldea, Morkaiko eta beste hainbat talderekin lanean hasi ziren. Enpresa handituz joan zen poliki-poliki, eta 1974an Manolo Rios hasi zen eurekin lanean, gerora, enpresako mantenu arduraduna izango zena. Urte berean Jesus Castro ere (Darioaren semea), txofer lanetan hasiko da. Lantaldea handitzearekin batera, enpresa mugak zabaltzen hasi zen, eta Espainian ez ezik, Europan ere egingo dituzte bidaiak. Besteak beste, Kroazia, Turkia, Grezia, Errusia edota Bosniara egingo dituzte bidaiak, eta Marokora ere iritsiko dira. Opor bidaiak izango

dira gehienak, baina, 2000-2005 urteen artean enpresekin eta Herri Eskolarekin hasiko dira lanean. Bezero asko eta anitzak dituzte, eta bezero fidelak ere bai: esate baterako, urtero-urtero lagun talde batek Alpeetara eskiatzera joateko deitzen die. Bezeroak bezalaxe, egiten dituzten bidaiak ere anitzak eta desberdinak dira. Milaka kilometro egin ditu Jesusek autobusez, eta leku gutxi geratuko zaizkio Europan ezagutzeko. Urrunen Errusiara joan da, baina bereziki bidaiaria bat dauka gogoan: Mostar (Bosnia). Balkanetako gudaren ondorengo urteetan izan zen han, eta

*Dario Bus-ek
lurrez iritsi daitekeen
edozein tokitara
eramango zaitu!*

ondo iltzatuta geratu zaizkio han bizi izandakoak.

Dario 1985ean jubilatzen zen, eta ordutik semeak darama enpresa. 1996an Izaskun Sudupe (Jesusen emaztea) sartu zen enpresan, eta gaur egun bikotearen alabek ere enpresan dihardute lanean; hirugarren belaunaldia. Bederatzi langile dira guztira, baina 50 urteren ostean, familia-enpresa izaten jarraitzen du Dario Bus-ek.

Zailtasunak zailtasun, enpresak bizirik dirau. Garai gogorak bizi izan dituzte eta krisialdiak eraginda une zailak pasatzea ere tokatu izan zaie. Baina osasuntsu eta pozik daude 50. urteurrena ospatzeko. Gaur egun zerbitzu aukera zabala eskaintzen dute: ezkontzak, bataioak, jaunartzeak, ikasbidaiak, oporrak, enpresa-bidaiak... Ez dauka mugarik Dario Bus-ek, eta lurrez iritsi ahal den edozein tokitara eramango zaitu!



ESKERRIK ASKO, DENOI!

Oraingoan ere, portatu zarete!



Eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen. Zuei esker, abenduaren 24a berezia izan zen, eta zuei esker Elgoibar euskalduntzen jarraituko dugu. Eskerrik asko tonbolarako opariak eman zenituzten guztiei eta baita ere tonbolako boletoak erosi zenituztenei. Zuek gabe ez litzateke posible izango. Mila esker Elgoibarko Udalarari, gure eskaerak aintzat hartzeagatik; mila esker Nerea Alustiza PSE-EEko zinegotziari bere lokala erabiltzen uzteagatik, eta mila esker Eibarko Eta Kitto! euskara elkarteari tonbolarako apalak lagatzeagatik. Eskerrik asko, baita ere Elgoibarko Izarraren txosnara gerturatu eta taloak edo bestelakoak dastatu zenituztenoi, eta eskerrik asko zuen borondatez hori guztia antolatzen lagundu zeniguten bazkideoi. Mila esker guztioi Elgoibar euskaldunago egiten jarraitzeko emandako bultzadagatik. Herri honek nahi badu, datorren abenduaren 24an ere hor izango gaituzue.

AEK euskaltegia / Agurtzane Ilea-paindegia / Ainhua Fisioterapia / Alcorta Forging Group / Aldaz hartz-klinika / Alfonso Guillo / Alire Estetika / Alkorta bakailauak / Altzola Berazeta baserria eta Kontsumo Taldea / Amagoia goxoki-denda / Amaia Fruta-denda / Amalur Urresti / Amaro Eraikuntzak / Ametsa kafetegia / Ana Mosacula / Ander Mujika / Andoni Rementeria / Andres Alberdi / Aranburu bitxi-denda / Arantxa eta Marian fruta-denda / Arauri lurrindegia / Arkauz burdindegia / Arkupe okindegia / Armueta harategia / Asiator / Astigarraga kirolak / Azkue argazki-denda / Azpi's bags (Idoia Azpilikueta) / Balentin Barrenetxea / Barrenetxea botika / Beitia Arriola fisioterapia / Beitia Arriola hagin-klinika / Belaustegi jatetxea / Beristain Logistika banaketa / Bikustik / BitxiBitxi / Bizkor / BM supermerkatua / Bolintxo / C.D. Elgoibar / Carlos Vela / Charola horniketak / Colchoneria Lagunak / Cordon Vilarchao / Cristina estetika / Cynthia Pazmiño / Danbaka / DanobatGroup / Dantzan.eus / Debemen / Dikar S.Coop / Doña Mercedes / Duo Plaentxi / Ecenarro / Ecolaundry / Egur arte-tailerra / Eizagirre okindegia / Elena ileapaindegia / Elgoibar Ikastola / Elgoibarko Gazte Asanblada / Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea / Elgoibarko Udaleko Gazteria Saila / Emilia Nogales / Enara Gorostiza / Ene Bada jantzi-denda / Eroski / Elgoibar Errigora / Esther Iburguren / Esteban Granero / Etxepe / Etxe-Tar / Evoka Shoes / Fadek / Ferpi / Fisio&Mas / Foterok okindegia / G&M jantzi-denda / Gabi jatetxea / Gaindu / Garate jantzi-denda / Garitaonandia botika / Geronimo Rulli / Gloria okindegia / Gobike bizikleta-denda / Gorostiza liburu-denda / Gure Esku Dago (Elgoibar eta Mendaro) / Hair's ileapaindegia / Haritz Euskal Dantzari Taldea / Hazten jantz-denda / Ibai-Ondo jatetxea / Ibarrenea okindegia / Ikus optika / Ilunpe taberna / Imanol Agirretxe / Iñigo Martinez / Ipintza margoak / Irati Agirreazaldegia / Iriondo altzari-denda / Iriondo Kirolak / Iriondo taberna / Irudi argazki-denda / Iturri taberna / Izaro Etxegibel / Jairo Berbel / Jakoba Errekondo / Jasone Osoro / Jesus Mari Makazaga / Jon Gurrutxaga / Jose Antonio ile-apaindegia / Justo Arriola / Kala lora-denda / Kalamua Guraso Elkarte / Kanku karate zentroa / Karakate jatetxea / Karkizano / Kilimon Trail / Kiroldegiko taberna / Koldo Izagirre / Kontxi jantzi-denda / Koska / Kutxabank / Laboral Kutxa / Lagun Taldea txirrindulari taldea / Lanbroa taberna / Larre okindegia / Lau dekorazioa / Leigar / Leire Garate (Orio Arraun Elkarte) / Lerun jatetxea / Lorea Castro / Elgoibarko Ludoteka / Lurdes ile-apaindegia / Luvik zapata-denda / Maria Angeles fruta-denda / Magi bitxiak / Maala kafetegia / Mahats arandegia / Maite Rementeria / Malape taberna / Mapfre / Mary harategia / Markel Bergara / Mekanosa / Merino oinetakoak / MG burdindegia / Mikel Aingeru Goenaga / Milar Bire / Mintxeta Atletismo Taldea / Moma jantzi-denda / Morkaiko Mendizale Elkarte / Morkaiko Raid Debabarrena Taldea / Munlet / Muruamendiaraz gozotegia / Mutua General de Seguros / Nagore Cid / Nieves Maidagan / Oinberri / Olalsa horniketak / Otzak taberna / Patxi harategia / Patziku Perurena / Pausoak zapata-denda / Pelegrin / Pepi eta Mila fruta-denda / Pilar Herrero / Pitxintxu / Sahatzu harategia / Salento pizzeria / Sanlo / Sara jantzi-denda / Sariki / Sinuöse / Soarte argazkiak / Su Ta Gar / Sugar goxoki-denda / Suministros Evia / Tantaka taberna / Taupada + 1936 taldea / Txarriduna jatetxea / Txerra Rodriguez / Txillarre eko-denda / Unai Villena / Unanue mertzeria / Urkiola taberna / Uxue Alberdi / Vanesa Mateo / Viento Sur gastroteka / Xanti Zapirain / Xarlem Creations / Xipri Arbelbide / Yudego farmazia / Zalao Arnaiz / Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkarte / Ziarda harategia / Zu+NI / Zubieta Lantzen Elkarte / ...



ELGOIBARKO IZARRA
Euskaltzaleen Topagunea

JESUS JIMENEZ

Ekonomialaria



Koltxoi azpian

mia Erkidegoak bi urte-tan 120 milioi euro izango ditu gure gastuak eta inbertsioak finantzatzeko, eta gainera, epemuga iristen denean, inbertsiogileei 36.000 euro gutxiago bueltatuko die, % -0,03ko errentagarritasunaren ondorioz.

Baina nola daiteke inbertsiogile edo aurreztaile batek dirua uztearen truke interesak ordaindu behar izana onartzea? Hau ez da orokorrean gertatzen den zerbait, eta gainera, ez dira familia eta aurreztaile txikiak era honetan beraien dirua inbertitzen dutenak, baina instituzio eta inbertsio funtsek beste irizpide batzuk erabiltzen dituzte kapitalak nun inbertitzen dituzten era-

bakitzeko. Gorabehera haundiko eta interes tasa negatiboko testuinguruan inbertsiogile hauek, arrisku eta ziurgabetasunetik ihesi, nahiago dute interes sei uko egitea edo zerbait ordaintzea dirua berreskuratzekeko segurantzia izatearen truke.

Maila instituzionalean gertatutakoa orokorrean gertatuko denaren aurrerapena bada ere, oraindik aurreztaile arruntarentzat ez da dirua banketxean izateagatik ordaintzeko momentu hori iritsi, nahiz eta gero eta gertuago dagoen. Paradoxa handia izango litzateke banka online, kreditu txartel eta mugikorreko aplikazioen garaian, Euskal Herriko ohitura zaharrak jarraituta dirua baserriko paretan dagoen zirrikituren batean edo koltxoi azpian gordetzera bueltatzea.

ragan azaroan finantza munduan al-biste bitxi bat izan genuen, aurreztaileentzat eta familia arruntentzat agian ulergaitza ere bai. Izan ere, interes tasa negatiboan testuinguru batean, Eusko Jaurlaritzak lehenengo aldiz dirua maileguz hartzeagatik interesak kobratzea lortu zuen, bi urterako bonujaulkipena arrakastaz bete ondoren. Zenbakitan adierazita, Euskal Autono-

“Baina nola daiteke inbertsiogile edo aurreztaile batek dirua uztearen truke interesak ordaindu behar izana onartzea?”



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
EuskoLur Erakundearen Espangurua

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zofoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako enantziokizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansoa, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldeggi, Maddi Mendibil, Haizea Beristain **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Joan dira ospakizunez betetako Eguberriak. Argazkiotan momentu batzuk jaso ditugu. Gehiago ikusteko, www.barren.eus webgunean sartuta aukera dago.

○ lentzero eta Mari Domingiren kale-jirak Elgoibarren eta Mendaron, Elgoibarko Izarraren Tonbola, Gabon Zahar azoka, San Silbestre lasterketa... Guztia ondo baino hobeto joan da. Gaur arratsaldean Ekialdeko Errege Magoak iritsiko dira opariak banatzera eta gure argazki kamerak han egongo dira.



Eguberriei errepasoa Elgoibar





Arg.: Nora Hadi



Eguberriei errepasoa Elgoibar





C.D. Elgoibarrek 100 urte



Ehun urte beteko ditu aurten C.D. Elgoibarrek, eta ospatzeko, egitarau oparoa antolatu dute aurtengo. Urte osoko ospakizuna izatea nahi dute, baina hasiera martitzenean, hilaren 10ean, emango diote Herriko Antzokian egin asmo duten mahai-inguru batekin. Zuhaitz Gurrutxagak gidatuko du mahai-ingurua eta CD Elgoibarri lotutako itzal handiko lau jokalarik eta entrenatzaile batek parte hartuko dute: Josetxo Arakistain, Jose Mari Arakistain, Itziar Gurrutxaga, Markel Bergara eta Jagoba Arrasate. Gonbidatu berezi bat ere batuko zaie, baina, mahaira: Julen Lopetegui, Espainiako selekzioko hautatzailea eta jokalaria profesionala izandakoa. Herriko Antzokia bete nahi dute mendeurreneko ospakizunei behar bezalako hasiera emateko, eta elgoibartar guztiak animatu dituzte bertara. 19:30ean hasiko da saioa, eta sarrera doan izango da.

- AINARA ARGOITIA -

Ehun urte, mende bat. Erraz esaten da, baina urteak bete egin behar dira. "Ospatzeko nahikoa motibo bada", dio Rafael Urrusolo C.D. Elgoibarko presidente izandakoak. Marini Arrese eta Juan Mari Iriondo bat datoz. Mendeurreneko ospakizunak antolatzeke batzordeko kideak dira, eta burubelari ari dira, urte osoko programa lotu nahian. Egitarau osoa aletzeko goizegi dela esan dute [ondo bidean, martitzenean aurkeztuko dute], baina lehen hiru hilabeterako lotu dituzten ekitaldi nagusienak zerrendatu dituzte: Hilaren 10eko mahai-ingurua, Altzolatarren Dorretxea filatelia elkarteak C.D. Elgoibarren mendeurrenaren harira aurtengo ediziorako propio sortutako zigilu-markaren aurkezpena, Udal Musika Bandak otsailaren 12rako iragarri duen kontzertu berezia eta martxoaren 3an futbol eskolako umeek Kalegoen Plazan jokatu dituzten partidak. Horrez gain, beteranoen partidak ere jokatu direla aurreratu dute, eta maiatza alderako C.D. Elgoibar eta Realaren arteko partida ere iragarri dute. Baina mendeurrena ez dadin ospakizunekin batera amaitu, C.D. Elgoibarren historiaren gaineko libururako materiala biltzen ere badihardute. Koldo Lizarralderi eman diote liburua idazteko lana, eta urte amaierarako argitaratzeko moduan izango dela uste dute batzordekideek.

Reportaje honetan, baina, hilaren 10ekoan jarri dugu arreta, eta mahai-inguruan protagonista izan direnei C.D. Elgoibarrek zer eman dien galdetu diegu. Klubaren historia laburtua ere jaso dugu. Antxon Iranzo da gaur presidente eta bederatzi talde (Ohorezko Mailan 1, Regionala 1, jubeniletan 2, kadeteetan 1, infantiletan 2 eta alebinetan 2) daude klubean. Talde horiei, baina, futbol eskolako bederatzi taldeak batu behar zaizkie. 2006, 2007 eta 2008. urteetan jaiotako 110 neska-mutil daude gaur egun futbol eskolan izena emanda. Batzuk eta besteak batuta, 300 neska-mutil inguru mugitzen ditu C.D. Elgoibarrek.



Jose Arakistain.....



“Niretzat Elgoibar dena izan da, eta C.D. Elgoibar beste horrenbeste. Plaza Txikian hasi nintzen futbolean, ilusio handiz, gero Flejen jokatu nuen [C.D. Elgoibarren bigarren taldea] denboraldi erdiz eta beste denboraldi erdiz CD Elgoibarren ibili nintzen, harik eta 17 urterekin Realera joan nintzen arte [18 urterekin egin zuen debuta Realera, 56-57 denboraldian]. Nire kirol ibilbidean eta zer esanik ez bizitzan, Elgoibarrek pisu handia izan du, eta ez daukat ahazteko. Tranpolin bat izan zen niretzat C.D.

Elgoibar. Gaur Donostian bizi naiz eta ez naiz nahi bestetan joaten Elgoibarrera, baina gonbidapena jaso dut mendeurreneko ekitaldira joateko eta hor izango naiz, gustura gainera. 79 urte ditut, eta mahai-inguruko zaharrena izango naiz, beraz zer kontatua badut. Ea asmatzen dugun ganoraz esaten. Sekulako ilusioa eman dit nirekin gogoratu izana, egia esan. 100 urte betetzea beti da pozgarria eta ospakizunak merezi du”.


Itziar Gurrutxaga.....



“Ikastolako talde batean eman nituen nik lehenengo pausoak futbolean. Ni ez nintzen ikastolako, baina batu nintzen hondartzan jokatzen zuten Ikastolako haien taldera. Gero C.D. Elgoibarrek hartu zuen talde hura eta han hazi nintzen futbolari moduan. Alberto Hernandezek deitu ninduen eta oso eskertua nago hari. Niretzat tranpolin itzela izan zen C.D. Elgoibar, han nenbilela deitu nindutela lehenengo Euskadiko selekzioarako, gero Espainiakorako eta baita Athleticen jokatzeke ere.

C.D. Elgoibarregatik izan ez balitz, ez dakit futbolari izango nintzen ere. Oso oroitzapen onak dauzkatzat C.D. Elgoibarren ibili nintzen garaiaz. Lagun giro handia geneukan, eta primeran pasatzen nuen kirola egiten. Gero futbol profesionala ezagutzeko aukera ere eman zidan talde hark eta oso eskertuta nago. Pena daukat gaur egun nesken talderik ez egotea C.D. Elgoibarren, baina itxaropena daukat sortuko dutela”.

Markel Bergara.....



“Oso denbora gutxi egon nintzen C.D. Elgoibarren, alebinetan Realera joan nintzelako, baina bai, hasi hor hasi nintzen futbolean eta eskerrak eman nahi dizkiot klubari, bai niri hasteko aukera emateagatik eta baita herrian egiten ari diren lanagatik. Futbola maite dutelako borondatez ari dira lanean, eta hori miresgarria da. 100 urte betetzea ospatzekoa da, eta badakit ekitaldi ugari antolatzen dihardutela, beraz, zorionak ere eman nahiko nizkieke lanean ari direnei. Eskatzen didaten guztian laguntzeko

prest nago ni neu, uste dudalako bai herriak eta bai klubak merezi dutela. Uste dut ari direla Realarekin partidaren bat lotu nahian, eta aukera hori suertatzen bada, behintzat, nik oso gustura jokatuko nuke Mintxetan nire taldearekin. Esan dizut ez dudala kluba gehiegi ezagutzeko aukera izan, fitxa ofizialik ere ez nuelako izan, baina koadrilakoak jokatzen ikustera joan izan naiz Mintxetara, eta hango hotzak ere hartutakoa naiz.

Jose Mari Arakistain.....



“Niretzako beti izan da berezia C.D. Elgoibar. Ume-umetatik kirolaria eta kirolzalea izan naiz, eta nire kirol ibilbidean ekipo askotan ibili izan naiz: Eibar, Real, Sevilla... Eta, Elgoibar. Eta niretzako bereziena Elgoibar izan da. Ez da mailarik altuena daukan taldea izan, baina benetan gustura sentitu izan naizen kluba da. Jokatu ez nuen asko egin Elgoibarren, urtebete baino lehenago Eibarrera joan nintzen-eta, baina entrenatzaile gisa zortzi urte egin nituen C.D. Elgoibarren eta oroi-

tzapen oso ona daukat. Oso urte onak izan ziren, bai kirol arloan eta baita arlo pertsonalean ere. Urte oso politak izan ziren, eta gaur egun oraindik lagunak ditut garai hartako taldekideak.

100 urte egingo ditu aurten, ez dira bi hilabete. Elgoibarrek historia handia dauka, eta guretzako handiena izan da, eta izango da”.

Jagoba Arrasate.....



“Elgoibarrek asko esan nahi du niretzat. Oso eskertuta nago klubari. Entrenatzaile gisa aritzeko aukera eman zidaten Hirugarren Mailan, eta hor lortutako emaitzek [hirugarren play-offa jokatu zuten] atea zabaldu zidaten gero Realean sartzeko, lehenengo oinarriko futbolean eta gero Lehen Mailan ere bai.

Baina batez ere eskerrak eman behar dizkiet hor egon nintzen denboran zoriontsu izan nintzelako. Bi urte egin nituen C.D. Elgoibarren entrenatzaile gisa eta denbora horretan, eta aurreko etapan, jokalaria izan nintzen garaian, lagun handiak egin nituen klubean eta harreman estua mantentzen dut horietako askorekin. C.D. Elgoibarren emaitzei beti erreparatzen diet, badauzkat futbolari garaian egindako lagun onak ere bai, eta zuzendaritza berrian ere badauzkat ezagunak, gauzak ondo egiten ahalegintzen ari direnak. Badakit garai onena ez duela bizi klubak, baina konfiantza osoa daukat hor lanean dihardutengengan, jakin badakidalako borondate onenarekin eta ilusioz ari direla. Lortuko dute buelta ematea.

Mendeurrenaren kontuarekin hasi zirenean ere esan nien prest izango nindutela behar zuten guztirako eta orain martitzeneko mahai-ingururako deitu didate. Mahai-inguru potentia izango da, eta eskertu behar diet horrako nirekin gogoratu izana. Neuk eman behar dizkiet eskerrak eurei. Egia esan, beti eramango dut C.D. Elgoibar bihotzean. Kluba laga nuenean oparitu zizkidaten gauzak ere ondo gordeta dauzkat etxean. Ea, beraz, urte osorako antolatu dituzten urteurreneko ekitaldiek indarra ematen dieten C.D. Elgoibar merezi duen lekuan jartzeko”.



Julen Lopetegui (Asteasu, 1966)

Oso gaztetatik erakutsi zuen dohain onak zituela atezain gisa jokatzeko. Realean eman zioten bere bertuteak erakusteko lehen aukera, baina Luis Mari Arkonadaren itzala luzea zen eta ez zen lehen taldearekin jokatzera iritsi. Real Madrilen bigarren taldera joan zen gero, eta Castillan hiru urtez eta Las Palmasen utzita beste laugarren bat jokatu ostean lehen taldera igo zuten. Debuta egin zuen, baina aukera handirik ez, eta laster laga zuen Real Madril Logroñesera joateko. Hiru denboraldi egin zituen han, bere kirol ibilbideko onenak. Bartzelonak fitxatu zuen gero, Andoni Zubizarretaren ordeaz eta Espainiako selekzioarako ere hautatu zuen Javier Clementek. 1994an AEBetan jokatu zuten Munduko Kopara eraman zuen Clementek. Rayon bukatu zuen bere futbolari ibilbidea.

Teknikari gisa, Rayo, Real Madril B eta Porto zuzendu ditu eta Espainiako beheko mailen ardura ere izan du. Gaur egun, Espainiako talde nagusia zuzentzen du.

C.D. ELGOIBARREN HISTORIA LABURTUA

- ◆ **1917.** 1917ko martxoaren 3an sortu zuten kluba Demetrio Vallejo, Rufino Unzueta, Jose Beloki eta Rikardo Astigarragak, Elgoibar Football Club izenarekin.
- ◆ **1925.** Lerun futbol zelaia inauguratu zuten.
- ◆ **1940.** Klubari izena aldatu zioten. Aurrerantzean Club Deportivo Elgoibar deituko zioten.
- ◆ **1943.** C.D. Elgoibarrek Juan Muguerzaren Oroimenezko Krosa erakundea sortu zuen. Klubaren koloreak jantzi zituzten hiru atleta nazioartean lehiatzera iritsi ziren: Juan Muguerza, Inazio Izagirre eta Felix Erauzkin. Futbolaz gain, C.D. Elgoibarrek beste sail batzuk ere izan ditu: atletismokoa, pelotakoa, txirrindularitzakoa eta eskubaloikoa.

- ◆ **1953-1954.** Regional mailan Gipuzkoako txapelkun izan ziren eta historian lehenengoz Hirugarren Mailan jokatzeko sailkatu ziren.
- ◆ **50eko hamarkada:** Bigarren Mailarako hiru igoera fase jokatu zituzten: 1954-1955, 1955-1956, eta 1956-1957.
- ◆ **1965-66:** Espainiako Afizionatuen Txapelketa jokatu zuten. Finalerdietaraino iritsi ziren. Real Madrilen kontra jokatu zuten finalerdia, eta galdu egin zuten.
- ◆ **1991-1992.** Bigarren B Mailara igotzea lortu zuten, estrainekez. 1996-1997 denboraldian bigarrenengo igo ziren Bigarren B Mailara.
- ◆ **1993-1994.** Mintxeta inauguratu zuten. Lerun utzi eta han hasi ziren etxeko partidak jokatzeko.

LANA.....
Eskaerak

Asteburuetan adinekoak zaintzeko prest nago. Astelehenerik ostegunera gauzez lan egiteko prest.

☎ 651 156 456

Adinekoak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 680 808 125

Tabernan, sukalde laguntzaile edo adinekoak zaintzeko prest nago.

☎ 616 328 060

Adinekoak zaintzeko prest nago. Asteburuetan. Esperientzia eta erreferentziak ditut.

☎ 631 562 461

Adinekoak zaintzeko edo etxeak garbitzeko prest nago. Arratsaldez.

☎ 648 039 187

Pertsona euskalduna adinekoak zaintzeko prest.

☎ 617 571 210

Informatika eskolak ematen ditut.

☎ 680 944 294

Nagusiak zainduko nituzke orduka. Esperientzia handia eta formakuntza ditut.

☎ 671 989 434

Nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia handia.

☎ 631 724 749

Nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia handia.

☎ 692 314 985

Garbiketa lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko prest nago, interna moduan ere bai.

☎ 602 193 095 / 612 216 458

Nagusiak zaintzeko prest nago, orduka. Garbiketa lanak ere egiten ditut etxe eta portaletan. Plantxa lanak ere bai.

☎ 631 098 995

Garbiketa lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko prest nago. Gauzez zein orduka.

☎ 631 506 763

Garbiketa lanak egin edo adinekoak zaintzeko prest nago.

☎ 631 790 555

Edozein lan egiteko prest nago: umeak edo adinekoak zaindu, etxeak, portalak, elkarteak, tabernak garbitu... Sukalde laguntzaile, zerbitzari... Garbiketa lanetan esperientzia handia daukat. Geriatria ikasketak ditut eta elikagaiak manipulatzen ditut ere bai.

☎ 616 441 825

Lanerako prest nago, orduka.

☎ 622 162 798

Eskaerak

Umeak zaintzeko pertsona behar dugu, orduka aritzeko, goizez eta arratsaldez.

☎ 690 362 464

ETXEBIZITZAK.....
Alokairua

Etxea hartuko nuke alokairuan.

☎ 637 966 749 / 651 156 456

Pisua alokatzen da, altzariekin. Bi logela, egongela, handia, terraza, ganbara, eguzkitsua eta igogailuekin.

☎ 669 598 769

Pisu edo ganbara bat hartuko nuke alokairuan. Bi logelakoa gutxienez.

☎ 631 098 995

Etxea alokatzen dut Mendaron, erdigunean. Bi logela, igogailua, berogailu zentrala, oso argitsua, egongela-jangela oso handia.

☎ 689 781 069

Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan.

☎ 688 723 121

Hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ 622 162 798

GARAJEAK.....

Garajea hartuko nuke alokairuan Urazandin.

☎ 609 951 243

Garaje itxia alokatzen dut Basarten.

☎ 943 531 131

BESTELAKOAK.....

Ohe artikulatu individuala salgai. Prezioa adosteko prest nago.

☎ 689 299 702

Hiru hilabeteko katakumeak oparitzen ditut.

☎ 646 723 911

Goiko Errota elkarteak bazkide berriak behar ditu. ☎ 626 797 027 (Julen)

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€.
Iragarkari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€.
Iragarkari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Jabekideen gure komunitateak bi bloketako etxejabeak batzen ditu. Batzar orokor batean obra bat egitea adostu genuen, eta obra horrek bloke batekoei zein bestekoei eragiten die. Hala ere, esku horietako batean ezusteko bat gertatu da, eta horrek hasierako obra-aurrekontua handitzea ekarri du. Jakin nahiko nuke aurrekontua handitzea batzarrean adostu behar den, kontuan izanda gastu hori kaltetutako eskilarako jabekide guztiek ordaindu beharko dutela, dagokien zatian.

Berez, aurrekontu bat onartzea edo aurrekontuen gaineko aldaketak onestea edo baztertzea jabekideen batzarrari dagokiola dio legeak. Estatutuetan ez bada zehazten batzar individualak egin ditzaketela bloke bateko zein bestekoek, jabekide guztiak, bloke batekoak zein bestekoak, deitu beharko dira batzarrera, legez egingo bada.

Ordaindu bloke batekoek bakarrik ordaindu beharko duten arren, jabekideen batzar orokorrean onartu beharko da aurrekontua handitzea. Batzarrera agertutako guztiek eman beharko dute botoa, eta ez kaltetuek bakarrik. Izan ere, teknikoki komunitatea bakarra da. Era berean, egin beharreko obrak ere batzarrera agertutako guztiek onetsi beharko dituzte.

AHOLKUA: zordunik balego jabekideen batzarrak zordunari kontu hartu ahal izango lioke, legeak ezarritako bideak jarraituta.

ROSALBA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749



Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Ander**, gaur 4 urte egin dituzulako. Familiakoen eta bereziki, Olaitzen partez.



Zorionak, **Sare**, bihar 8 urte egingo dituzulako. Etzekoen eta bereziki, Unai eta Olaiaren partez.



Zorionak, **Nahia**, astelehenean 7 urte bete zenituelako. Muxu handi bat etzekoen, eta bereziki, Jonen partez.



Olentzero etorri zan, bixar erregiak eta astelehenian zure urtebetetzia. Zorionak, **Ihintza!** Muxu bat Elgoibarko sorginen partez.



Zorionak, **June!** Urtarrilaren 3an, 9 urte! Egun ona pasa. Etzekoen eta bereziki, Oierren partez. Ilargiraino eta buelta maite zaitugu.



Zorionak, **Manuel**, hilaren 4an 80 urte bete zenituelako. Besarkada bat, emazte, seme-alaba, biloba eta etzeko guztien partez.



Zorionak, **Felisa eta Flora**, bihar 99 urte egingo dituzulako. Txarridunako koadrilakoen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€.
Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€.
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

MOTIBAZIOAK
ERAMATEN ZAITU HASTERA
OHITURAK,
MANTENTZERA

URTERA EZIN HOBETO HASTEKO

- * Tai chi
- * Chi kung
- * Kung Fu
- * Pilates eta Gimnasia Terapeutikoa
- * Fitness Tonifikazioa
- * Karate
- * Fit Box
- * Zumba

Informa zaitez:
652 782 303 - 656 741 167
Pedro mugurutza, 9
Elgoibar

C.D KANKU

A. Garate

Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua
angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia - 20870 Elgoibar

610 226 651

Uzuri
optika audio
www.uzurioptika.com

38 URTEZ ZUEKIN



San Frantzisko, 21
20870 Elgoibar
Tel.: 943 740 359

Ostolaza, 7
20820 Deba
Tel.: 943 192 192

Gure urteurrena ospatzeko oparia:

Boleto hau ekarriaz gero

10€ko
deskontua

eskuratuko duzu zure erosketan.

Erosketa
bakoitzeko
txartel bat

Baliogarria
2017ko urtarrilaren 14ra arte

5 EGUENA

17:30 Jaiotza biziduna. Kalegoen plazan.

18:00 Erregeen kabalgata, Elgoibarren. Santa Klaratik iritsiko dira.

18:00 Erregeen kabalgata, Mendaron. Alkortatik etorriko dira, eta Billale ingurutik abiatuko da.

6 BARIXAKUA

11:30 Kristau ikasbidekoen meza. Errege magoekin, San Bartolome parrokian.

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua. Herriko Antzokian.

10 MARTITZENA

19:30 C.D. Elgoibarren mendeurrenaren aurkezpena, Herriko Antzokian. Mahai-ingurua: Josetxo Arakistain, futbolari ohia; Jose Mari Arakistain, futbolari eta entrenatzaile ohia; Jagoba Arrasate, entrenatzailea; Itziar Gurrutxaga, futbolari ohia; Markel Bergara, futbolaria; Julen Lopetegui, futbolari ohia eta Espainiako selekzioko hautatzailea. Moderatzailea: Zuhaitz Gurrutxaga, futbolari ohia.

13 BARIXAKUA

20:30 Antzerkia: 'Desoxirribonukleiko', Herriko Antzokian.

KOMENIGARRIA AL DA BIZITZA ASEGURU BAT KONTRATATZEA MAILEGU BAT ESKATZERAKOAN?

Orokorrean iruditzen zaigu etxebizitza mailegu bat eskatzen denean, bizitza aseguru bat izatea garrantzitsua dela. Izan ere, eskatzen den zenbatekoa handia denean, zerbait gertatuz gero ondorio ekonomikoak larriak izan daitezke.

Adibidetzat bikote gazte bat hartzen badugu, biek antzerako soldata izanda 150.000 euroko mailegua eskatzen dutena, onena baikoitzak zenbateko horren erdia aseguratzea litzateke, hau da 75.000 euro. Horrela, bietako bat faltako baltitz, besteak maileguaren erdia arazorik gabe ordaindu ahal izango luke. Diru-sarrerak erdira jaitziko lirateke, baina zorra ere bai. Bikotean bietako batek besteak baino diru sarrera askoz handiagoa badu, kasu horretan pertsona hori bakarrik aseguratuko genuke. Era berean, bikotean, bietako batek lanik egiten ez badu, ez luke zentzurik izango berak aseguruia izatea.

Bukatzeko, adibide gisa, 30 urteko bikote batentzat 150.000 euroko bizitza aseguruaren kostua urteko 222 eurokoa litzateke. Heriotzaz gain, elbarritasunaren kobertura ere izango luke.

Atal honetarako galderarik proposatu nahi izanez gero idatzi helbide elektronikoa honetara: galderak@bankoia.es



BARREN Elgoibartik kanpo jasotzen dutenentzako oharra

Hego Euskal Herria eta Espainia: **28€**
(Elgoibarko Izarrako bazkideek **22€**)

Ipar Euskal Herria eta Europa: **41€**
(Elgoibarko Izarrako bazkideek: **31€**)

Europatik kanpo: **53€**
(Elgoibarko Izarrako bazkideek: **42€**)


Harremanetarako:

943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.es



Patxi Urain Lazkano

2016ko abenduaren 29an hil zen, 92 urte zituela. Haren oroimenez domekan, urtarrilaren 8an, meza izango da, 12:00etan Mendaroko Azpilgoetako elizan. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Zinea (Herriko antzokian)



'Rogue one: Una historia de Star wars'

6 barixakua 21:30
7 zapatua 19:00 / 22:15
8 domeka 19:00
9 astelehena 21:30



'Peppa pig' 8 domeka 16:30

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

**G
U
A
R
D
I
A
K**

09:00 - 22:00

5 Eguena ETXEBERRIA
6 Barixakua ETXEBERRIA
7 Zapatua YUDEGO

8 Domeka YUDEGO
9 Astelehena ORUESAGASTI
10 Martitzena BARRENETXEA

11 Eguaztena IBAÑEZ
12 Eguena GARITAONANDIA
13 Barixakua ETXEBERRIASTI

22:00 - 00:00 Astelehenetik domekara
ETXEBERRIA (Elgoibar) - Santa Ana, 1 - Tel.: 943 740 140

00:00 - 09:00
IRAUNDEGI (Eibar) - Fermin Calbeton, 19 - Tel.: 943 201 110

* Fernandez: Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro) - Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel.: 943 751 384

Azaroan eta abenduan hildakoak

- ♦ **Ignacio Etxeberria Larrañaga**
'Parapan' 88 urte, azaroak 4
- ♦ **Imanol Urain Arakistain**
81 urte, azaroak 4
- ♦ **Jesus Mari Ansola Zigorruga**
80 urte, azaroak 5
- ♦ **Milagros Gonzalez Montoya**
88 urte, azaroak 5
- ♦ **Emilio Cid Fernandez**
86 urte, azaroak 15
- ♦ **Jose Luis Alkorta Barrena**
66 urte, azaroak 29
- ♦ **Antonio Cordon Rueda**
62 urte, abenduak 2
- ♦ **Jose Gamiz Ramirez**
89 urte, abenduak 5
- ♦ **Jovita Alberdi Alberdi**
82 urte, abenduak 12
- ♦ **Matxi Itarte Urroz**
83 urte, abenduak 12
- ♦ **Irene Unzueta Iriondo**
93 urte, abenduak 12
- ♦ **Felix Zubizarreta Astigarraga**
88 urte, abenduak 15
- ♦ **Nieves Odriozola Unchalo**
89 urte, abenduak 18
- ♦ **Ignacio Gabilondo Muguerza**
'Txinol' 84 urte, abenduak 18
- ♦ **Sebastiana Curieses Caballero**
90 urte, abenduak 18
- ♦ **Sotero Mancisidor Osoro**
89 urte, abenduak 18
- ♦ **Ezequiel Monforte Santamaria**
79 urte, abenduak 19
- ♦ **Manuela Artetxe Galdos**
88 urte, abenduak 22
- ♦ **Daniela Charles Gutierrez**
84 urte, abenduak 25
- ♦ **Ladislao Iureta Gabilondo**
81 urte, abenduak 25
- ♦ **Laurentina Casado Gonzalez**
91 urte, abenduak 28
- ♦ **Kontxi Unanue Olaizola**
85 urte, abenduak 28



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.



Julen Ansola

Irati Agirrezaldegi



Gabonak pasa dira eta sartu gara urte berrira. Askok gustukoa dute argien dizdira eta jende ugari egon da jaiotzari begira. Baina Jesusen jaiotza iritsi al da hizketagai gure etxeko afari zein bazkarrira? Nago askok ez lukeela zer esanik izango marisko, bildots edo turroien gainetik erlijio kontuak platereratu izan balira.

Erlijio katolikoak izaten du gogoan Jesus jaiotzen eguna, baina munduan bada beste hainbat erlijio eta bakoitzak badu bere ahalduna, badu bere sinesmen edo sineskeriekiko maitasuna. Budismoaren kolore laranja, esaterako, adierazten du budistek jakinduria, indarra eta duintasanarekiko duten fedea eta gertutasuna.

Buda ez da Jainkoak bidalia, ez da profeta eta budismoak

ez du sortzaile bati buruz egiten berbeta. Bere oinarria da sufrimendua norberagandik desagertu dadin beste gauza batzuetan jartzea arreata, bakoitzaren burua ilusioz jantzeko bidea hori da-eta.

Gurean kristautasuna da nagusi, baina nork ez ditu budistak, juduak, islamistak edo hinduak, telebistan bada ere, beraien erlijioari men eginez errezuan ikusi?

Bakoitzak badu bere sinesmenekiko fedea eta nire hitzei josten hasi naiz Jon Martin bertsolariaren hitz batzuk osten: "Fedean sinesten dut nahiz fede bat bakarrik ez den, baina sarri lanak dauzkat nire buruan sinesten".

Gabonen ondoren urte berria, eta esaeraren arabera urte berri egunean arropa berria jantzten duenak infernuko deabruari begia ateratzen dio. Jainko eta deabru, ez litzateke kalterako guk ere une batez gure sinesmenari esan adio eta besteenei keinu eginez arropa berria jantziko bagenio?

"Nago askok ez lukeela zer esanik izango marisko, bildots edo turroien gainetik erlijio kontuak platereratu izan balira"



I. URTEURRENA

Jesus Maria Aizpurua Zabala

2016ko urtarrilaren 7an hil zen, 65 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urtarrilak 7, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***"Nabaria da zure hutsunea,
nabaria joan zineneko unea.
Sekula joango ez dena da
zuk utzitako elkar-gunea"***



Daniela Charles Gutierrez

2016ko abenduaren 23an hil zen, 84 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

Pakita Arrillaga Arrillaga

2016ko urtarrilaren 8an hil zen, 75 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urtarrilak 7, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



Bitoriano Loiola Iriondo

"Ospas"

2016ko abenduaren 28an hil zen, 90 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Gerra aurreko sutondo hartan
soinujotzen ikasia
santa eske ta plazarik plaza
hainbat bazter ikusia.***

***Etxean ere ereinda dauka
trikitixaren hazia
urteen joanak ez baitu ixildu
bere soinuan grazia.***

Zeureak



Gremioen gida

Aroztegiak
Elektrizitatea
Igeltseritza
Iturgintza
Leihoak
Pintura

ITURGINTZA



ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com



Hemiko Enparantza, 10 behea
MENDARO
943 75 60 44 / 628 529 692
Faxa: 943 75 60 37
pagoerrotapagoerrotaiturgintza.com
www.pagoerrotaiturgintza.com



Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongi.elgoibar.com
www.ongi.elgoibar.com



San Roke 10-A, behea B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net



Azpilgoeta 7 behea - Mendaro
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzatefabelle@hotmail.com



BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Urzuzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585
senda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
falleri@pagoagasa.com
ELGOIBAR

AROSZTEGIAK



Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



Olaso Industriegunea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriamar@hotmail.com



aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain Industriegunea, 9
20850 Mendaro
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com



Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com



Albitxuri Industriegunea, 1-0/ 1-P
943 740 547



LEIHOAK



SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

PINTURA



Uparitzaga, 14 - Elgoibar
943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

IGELTSERITZA



Urasandi, 22 behea - Elgoibar

Tel.: 605 705 204

Gremioen arteko
koordinazioa.
Pladurarekin ere
lan egiten dugu.



Jardiñeta, 25 behea
EIBAR

Ernesto: 620 060 104
Fran: 600 465 789

ELEKTRIZITATEA



elektrizitatea


Kilimon hiribidea, 1 - Mendaro
943 530 356

iparelek@gmail.com
iparelek@iparelek.com



Uparitzaga 10, 6.B
Elgoibar
karranzaj@gmail.com

Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999



ELEKTRIZITATEA S.L.
(lehen TAES)

Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Raimon: 677 512 462
Bulegoa: 943 200 697

Gremioen gida

Aroztegiak
Elektrizitatea
Igeltseritza
Iturgintza
Leihoak
Pintura